

2015eko AZAROAREN 9ko KANBOKO HERRIKO ETXEKO BILKURA

Herriko Kontseilua, 2015eko azaroaren 9an, astelehenarekin, 20:00etan, Vincent BRU Jaunaren lehendakaritzapean bildu da herriko etxean.

Bertan ziren: Vincent Bru Jauna, Auzapeza, Bernadette Jougleux Anderea, Christian Devèze Jauna, Eliane Noblia Anderea, Frédéric Bardin Jauna, Pascale Lespade Anderea, Didier Irastorza Jauna, Eliane Aizpuru Anderea, Henri Saint-Jean Jauna, axuantak, Anne-Marie Pontacq Anderea, Vincent Goytino Jauna, Christiane Despéries Anderea, Patrice Dor Jauna, Yolande Huguenard Anderea, Jean-Jacques Lassus Jauna, Argitxu Hirigoyen Anderea, Jean-Noël Magis Jauna, Corinne Othaceguy Anderea, Maryannick Hirigoyen Anderea, Roger Barbier Jauna, Carmen Gonzalez Anderea, Pascal Bourguet Jauna, Véronique Larronde Anderea, Argitxu Hiriart-Urruty Anderea, Philippe Bacardatz Jauna, Nathalie Aïçaguerre Anderea, Pantxo Michelena Jauna, herriko kontseilariak.

Hor ez zirenak edo jakinarazi zutenak: Peio Etchelecu, Camille Jenvrin Jaunak, herriko kontseilariak.

Ahalordea: Camille Jenvrin Jaunak Bernadette Jougleux Andereari.

1 – Saioko idazkariaren izendatzea.

Aho batez bertan ziren kideek Argitxu Hirigoyen Anderea izendatu dute saioko idazkari.

2 – Azken saioaren bilkura agiriaren onartzea.

Auzapez jaunak Herriko kontseiluko kideei galdegiten die oharrak badituztenez 2015eko irailaren 21ean gertatu den saioaren bilkura agiriari buruz. Nehork oharririk ez egitean, azken saioko bilkura agiria aho batez onartua da.

3 –« Hiri bihotza » operazioaren 3. zatia: egitasmoaren onartzea.

Jean-Noël Magis Jaunak, herriko kontseilari delegatuak, joan den azaroaren 3an « obrak » batzordeko bilkuraren kariatara aztertua izan den « Hiri bihotza » operazioaren 3. zatiaren programa aurkezten du, eta ondokoaz osatua da:

- zati fermu bat: Elizako plazan
- baldintzazko bi zati: bat Chantecler aparkalekurako, bigarrena apezetxeko plazarako.

2014ko uztailaren 21eko erabakiaren bitartez obralari gisa izendatua izan den Arbelbide/BET IMS batasunak lagundu du herria egitasmo horretan.

Obren aurreikusitako kostua 590 000 € ZK-koa da, dragintza barne. Lanak nagusiki, zonalde horren edertzeko eginak izanen dira. Antolaketa gehigarri bat burutuko da farmaziaren aitzinean. Orain arteko aparkatze leku kopuru berdina atxikitzea, aitzineko zatietan egina izan den bezala bideko egituraren estalketa betoi desaktibatuan segitzea eta mugikortasun urriko

pertsonentzako normen egokitzea da helburua. Zuhaitzak atxikiak izanen dira. Sartzeetako antolaketa erretxinaz burutua izanen da.

Magis Jaunak zehazten du obretako batzordearen bilkuran, saltegiatarara eskuetaratzeko ibilgailuak eta bankuetara diru garraiatzaileak hurbiltzea aipatua izan dela, bai eta autobusak plazara hurbiltzeko ahala. Pertsona batzuek nahi zuten autobusak « hiri bihotzera » sartu ahal daitezen, eta adierazia izan zaie herriaren asmoa autobusak leku horretan ez ibiltzea zela, eta autoei baino, oinezkoen bidea uztea zela. Aldiz, aurreikusia da, egitasmo honen barnean, aparkatze lekuak « su gorriaren » heineraino hedatzea, eta bi leku gehiago sortzea.

Obra 2016ko lehen erdialdian gandi, urtarriletik maiatza bukaerara burutuak izanen dira. Kontsulta joan den urriaren 26an abian ezarria izan da, eta eskaintzak 2015eko azaroaren 16ko helarazi behar dira.

Auzapez jaunak Magis Jauna eskertzen du egin duen aurkezpena dela eta. Gehitzen du operazio honen alde departamenduko Kontseiluak 177 000 €-ko diru laguntza bat emanen duela Errobi lurralde kontratuaren kariatara, eta Estatuak 27 000 €-koa parlamentu erresebatik. MAPA batzordea laster bilduko da, lehen denbora batean, gutunen irekitzeari ekiteko eta, bigarren aldi batean, eskaintzak aztertu ondoren, obra hauen burutzeko ardura ukanen duen enpresa atxikitzeko.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du, obren garaian, saltegiatarara hurbiltzen ahalko denez.

Magis Jaunak erantzuten du, autoak plazara heltzeko parada ahal den neurrian mantendua izanen dela, baina obren ondorioz, leku hau hetsia izanen dela garai batzuetan. Zirkulazio zentzu batzuk berriz ikusiak izanen dira.

Auzapez jaunak zehazten du, aitzineko zatiak burutzeko garaian bezala, oinezkoen zirkulazioak bederen mantenduak izanen direla eta obren aitzinatzei buruzko astez asteko informazioa eskainia izanen dela. Zirkulazioaren hertsitze bat aurreikusi behar da alabaina, obren programazio batek hiri barnean, zirkulazio aldaketa bat nahitaez eragiten duelako.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du non kokatuak izanen diren Magis jaunak aipatu berri dituen bi autobus tokiak.

Magis Jaunak adierazten du leku horiek Edmond Rostand hiribidearen luzeran izanen direla.

Aiçaguerre Andereak oharrarazten du pertsonen bigarren mailako errepidea zeharkatu behar duela Elizara joateko, eta galdegiten du autobusak nora joanen diren ondotik.

Magis Jaunak adierazten du lekuak aurreikusiak direla igeritokiaren ondoan autobusetarako.

Auzapez jaunak zehazten du usaian, Monumentu Historiko sailkatu eraikinetatik hurbil (Eliza sailkatua izan baita baina ministerioko agindua ez da oraindik herriko etxera etorri), neurriak hartuak direla pertsonen bertara segurtasun osoz hel daitezen.

Auzapez jaunak bozkarazten du.

« Hiri bihotza » operazioaren 3. zatia egitasmoa gehiengoak onartzen du. Ondokoak abstenitzen dira: Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aiçaguerre Anderea eta Michelena Jauna.

Auzapez jaunak oharrarazten du oposizioko lau kideak abstenitzen direla Elizako auzotegiaren edertze, balioztatze eta ahalmen urriko pertsonen helgarritasun egitasmoari dagokionez.

4 – Saneamendu kolektibo obrak: partikularren parte hartzea.

Devèze, axuanta oredezkarri jaunak, oroitarazten du 2015eko irailaren 21eko deliberoaren bitartez, herriko kontseiluak Camp de César bideko ur zikinen saneamendu sarearen luzatzeari dagozkion obrak ECRD/DUHALDE/SEIHE taldeari eskainiak izan zaizkiola. Alabaina, aho batez bozkatu saneamendu programan, bi operazio nagusi agertzen ziren: Camp de César bidea eta Termetako zubian.

Camp de César bidearen gaineko obrek 227 447 € ZK kostako dute, eta ez da diru laguntzarik emanen hauen burutzeko luzatze bat delako eta ez sare erreberritze bat.

2015eko urriaren 2ko gutun baten bitartez, tokiko bizitzaileei obren burutze izaera eta baldintzei buruz informatuak izan dira. Hauek joan den urriaren 19an hasiak izan dira eta zortzi astez iraunen dute, baina, baldintza klimatikoak arrunt aldekoak izanki, epe hau laburtua izan daiteke.

Devèze Jaunak seinalatzen du bertako bizitzaileek sareari hemendik bi urtera gehienik lotzera behartuak direla.

Lurralde kolektibitateen kode orokorrak, Herriko kontseiluak bozkatu saneamendu zerga bat erabaki du, zati finko eta zati aldagarri batez osatua den zerga. Bizitzaileen parte hartzeari dagokionez, kolektibitateak hartzaileei saneamendu kolektibo baten burutzeko xahutzeetan sarrarazteko ahal badu, eta hau bi mailatan:

- sare publikoari lotze fresetan, L.1331-2 artikulua aplikatuz,
- saneamendu kolektiboaren finantzatzeari parte harraraziz (PFAC/SKFP PACohia) L.1331-7 artikulua aplikatuz.

Herriko Kontseiluari eskatzen zaio haren iritzia eman dezan partikularrek lotze eta fresetan parte hartzeari buruz.

Proposatua da PFAC/SKFP (11,30 €/m²) ondoko moldean jasanarazia izan dadin: %50 egiaztatu kolektiboa ez den saneamendu plantatzeetarako eta %100 egiaztatuak edo batere ez dauden kolektiboa ez den saneamendu plantatzeetarako.

Devèze Jaunak zehazten du lotze fresetarako, gaur egungo aitzinkontuak 1 620 € eta 2 188 € artekoak direla.

Bacardatz Jaunak historikoa oroitarazten du. Programa saneamendu batzordean aurkeztua izan da joan den otsailan eta bertan onartua izan zen. Irailaren 7ko eskaintza deialdi batzordearen bilkuran, galdegin zuen bertako bizitzaileei obrei buruzko berriak emanen dizkien gutun bat helaraz zatzaiei. Urriaren 2an gutun bat igorria izan zaie obren hastapenaz abisatzeko eta dokumentu bat bidaliko zatzaiei lotze kutxatxo ezartzeko eta diru mailako parte hartze bat finkatua izanen zela anistazeko. Bestalde ere, gutun horretan aipatzen zen bizitzaile bakoitzak bi urteko epea zaukala tratatze autonomo dispositiboa kentzeko eta berriki pausatua izan den lotura kutxarekin ur zikinen lotzea egiteko, fresak harengain izanki. Lotura kutxa plantan ezarria izatean hartzedunek kolektiboa ez den saneamendu zerga ordaintzerik ez lukete gehiago, baina ur fakturan gehitu saneamendu kolektibo zerga ordaindu beharko lukete, kontsumitu ur edangarri bolumenaren arabera. Gaur egun,

kutxatxoaren ezartzeari dagokion gutuna ez da oraindik errezebitua izan kutxatxoak jadanik ezarriak direlarik.

Devèze Jaunak zehazten du batzorde egokia bildu dela saneamendu programa proposatzeko. Oroitarazten du saneamendu eskumena laster eskualdatua izanen dela eta bizitzaile batzuk eskatu zituzten obra hauek herriak burutu nahi zituela. Hipotesi horretan, eskumena galduko balitz, ez zela segur URA sindikatuak operazio hau lehentasunetan kokatuko zukeenik, eta horretarako duela herriak obra hauek burutzeko erabakia hartu. Zoritxarrez, Bai Departamendu kontseilua eta bai Uraren Agentziaren funtsak gero eta urriagoak dira, eta ez da diru laguntzarik programa horretarako. Kolektibitate bakoitzaren mailan, dena urrikerik izan daiteke. Baina gauzak haien balio zuzenera ekarri behar dira. Kolektiboa ez den saneamendu batek 10 000 € kostatzen du. Lotura freseetan parte hartzeari dagokionez, ordainketa epeak bizitzaile bakoitzaren ahalekin arabera finkatuak izan daitezke. Zehazten du herriak ez duela diru etekinik atera nahi aurrekontu horretan. Beste helburu batzuk bilatzen dira, ingurumen mailan besteak beste. Herriari operazio guzietan urrikerik ibiltzea zaila zaiola azpimarratzen du. Pentsatzen zuen beste oihartzun bat ukanen zuela operazio honetan, kolektibitatearentzako kostua garrantzitsua izanki. Gehitzen du ez zitzaiola bizitzaileen informazio epea esanguratsuen iruditzen. Adierazten du obralariarengana hurbildu dela jakiteko komunikazioa eskasa izanenez, eta zein ziren arrazoizko epeak eta bizitzaileei zuzendu dokumentuak. Arrazoizko epea, obrak hasi aitzineko bi astetakoak da. Gutun bat igorria izan da, eta bizitzaile bakoitzari parte hartze bat proposatua izanen zaio.

Bacardatz Jaunak, hamabi etxerako inbestizamenduari buruz, galdegin zuen etxekako sanamendurako 20 000 € xahutzea ez zenez gehiegi, eta egitasmo bat ba zenez auzotegi horren inguruan.

Devèze Jaunak erantzuten dio ez duela aurrekontu orokorra etxebizitzaren kopurura ekarri. Ez da hirigintza egitasmorik, eta obra hauek saneamendu eskumena eskualdatua izan aitzin burutuak dira.

Bacardatz Jaunak galdegiten du gutun bat bidalia izanen zaienez bizitzaileei parte hartzearen zenbatekoarekin, eta noiz. Bakoitzaren parte hartzea zehatza ezin baitu ukan, posible ote da galdegina izanen den parte hartzearen zenbateko zehatza ezagutzea?

Devèze Jaunak adierazten du tasa bat, ordainsari bat edo zerga bat erabakia delarik, pertsona batzuk ez dutela nahi ordaindu behar dutena publikoki ezagutarazia izan dadin. Operazio hau ezin da urrikerik burutu.

Bacardatz jaunak erantzuten du ez duela behin ere erran urrikerik izanen zela, baina deitoratzen du egitasmo hau ez dadin saneamendu batzordean aztertua izan. Hobe izanen zen aipatzea gutuna bizitzaileei igorri aitzin. Gai hau orain tratatzen da batzordean ez delako ikusia izan.

Devèze Jaunak azpimarratzen du hainbat aldiz programa hau Camp de César biderako aipatua izan dela. Gau honetan, Kontseiluak iritzi bat eman behar du bizitzaileen parte hartzearen printzipioaz. Adierazten du HEA bulegoa den obralariarekin harremanetan sartu dela, jakiteko aurrekontuak zuzenak zirenez.

Bacardatz Jaunak gehitzen du bera ere HEA eta ECRD enpresarekin harremanetan sartu dela eta hauek azaldu diotela egin aurrekontua hein gorenera kalkulatu zela. Obrak bukatzean, hartzean, zinezko prezioa ezagutua izanen da.

Devèze Jaunak Herriko kontseiluari gomita luzatzen dio saneamendu kolektibo horretarako bizitzaileen parte hartzeari buruzko iritzi bat adieraz dezan, eremu publikoko loturako metro lineal errealean arabera.

Bacardatz Jaunak adierazten du haren parte hartzearen zenbatekoa jakinarazia izan zaiola.

Devèze Jaunak zehazten dio aurrekontuak besterik ez direla izan.

Bacardatz Jaunak galdegiten du bakoitzaren parte hartzea noiztik goiti ordaindua izan behar den.

Devèze Jaunak erantzuten dio zenbatekoa ezagutu orduko ordaintzen ahalko dela.

Bacardatz Jaunak galdegiten du parlamentu erreserbatik etorri diru laguntza bat lortzen ahal duenez programa honek, « Hiri bihotza » operazioaren 3. zatirako halako bat eskuratu duelako herriak.

Devèze Jaunak erantzuten du herriak ezin dituela parlamentu erreserbatik etorri diru laguntzak operazio guzietarako eskuratzeko ahal.

Bacardatz Jaunak galdegiten du zoin momentutik goiti eskatua izanen den PFAC/SKFP: obrak bukatu ondotik edo lotura burutua izanen delarik.

Devèze Jaunak adierazten du zerga bat zerbitzua eskainia denean biltzen dela.

Bacardatz Jaunak, saneamendu kolektibo ordainsariari dagokionez seinalatzen du bizitzaileei igorria izan zaien gutunean, adierazia dela obren bukaeran eskatua izanen daitekeela. Loturak burutuak izanen ez direnez, bizitzaileei egokitzen zaizkien fresak ikusirik, galdegiten du posible litekeenez zerga hori eskatzea PFAC/SKFP-rako bezala, erran nahi baita zerbitzua eskainia den momentutik.

Devèze Jaunak zehazten dio bizitzaile gisa errezibitu duela eta ez saneamendu batzordeko kide gisa. Oroitarazten dio herriak etekinik ez duela ateratzen, eta zergak zerbitzuan jarri ondoren bilduak izanen direla.

Bacardatz Jaunak oharrarazten du zenbatekoak ezagunak ez diren hiru punturi buruzko bozka eman behar dela.

Devèze Jaunak erantzuten dio Kontseiluak iritzi bat eman behar duela metro karratuko 11,30 €-tan kalkulatu parte hartzearen printzipioari buruz, molde honetan: %50 egiaztatu kolektiboa ez den saneamendu plantatzeetarako eta %100 egiaztatuak edo batere ez dagoen saneamendu ez kolektiboa plantatzeetarako.

Bacardatz Jaunak zehazten du ordainsaria PFAC/SKFP ordaindua izanen denetik aplikatua izanen dela.

Devèze Jaunak adierazten dio ordainsaria saneamendua zerbitzuan ezarria izanen denetik aplikatua izanen dela.

Lespade Andereak seinalatzen du bizitzaile batzuk erran diotela kontaktatuak izan behar zirela lubakia nun egina izanen zen ikusteko, eta arreguratuak direla momentuko nehor ikusi ez dutelako, eta ez dakitelako nola zeharkatuko duten haien lur zatia.

Devèze Jaunak zehazten du enpresari galdegin diola bizitzaileak kontaktatuak izan zirenez. Erantzuna izan zaio harreman batzuk izan direla pertsona batzuekin lekuan berean. Arazoren bat gertatuz gero, Devèze Jaunak bere burua proposatzen du bizitzaileak errezibitzeko.

Bacardatz Jaunak, proposatzen dio bizitzaileak saneamendu batzordearekin errezibitzea, obren lana aurkeztu, ordaintzeko moldea eta haien parte hartzearen zenbatzekoari buruzko informazioak emateko.

Devèze Jaunak adierazten du ez duela batzordea bilduko, eskatzen duten pertsonak, bakarka errezibituko dituela.

Auzapez Jaunak borkarazten du.

Gehiengo batek erabakitzen du Camp de César bideko saneamendu kolektiboko obretan bizitzaileek parte har dezaten. Abstenitzen dira: Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aïçaguerre Anderea eta Michelena Jauna.

5 – Monumentu historiko gisa sailkatu eraikinetarako departamenduaren laguntza: hitzarmena Departamendurekin.

Auzapez jaunak adierazten du herriari eskatzen zaiola hitzarmen bat pasatzea Pirinio Atlantikoetako Departamendurekin ondare eskema berriaren baitan. Oroitarazten du Departamenduko kontseiluak, orain arte, %25 heineko diru laguntza bat eskaintzen zuela. Tasa honek apalduz joan behar lukeelako, Herriko kontseilauk fite deliberatu behar du tasa hau %25etan sakraliza dezan datozen urteetarako.

Estatuak Monumentu historiko gisa sailkatu eraikinei ekarri diru laguntzarako baimen berezi bat behar da, lurralde kontratuen baitan herriek eta herri arteko elkargoek ekarri laguntzari konparatuz. Monumentu historikoen zerrenda gehigarrian ekarriak diren monumentuak bakarrik dira lurralde kontratuan sartzen; monumentu sailkatuetarako (Arnaga, Eliza), dispositibo berezi batean sartzen dira.

Hitzarmen honek hartzen ditu, alde batetik, erreberritzea eta beste aldetik Monumentu sailkatuen mantenua. Erreberritzeari dagokionez, 895 000 € ZK-ko obrak programatu zituen DRAC-ek, eta Departamenduak dispositiboan %25-eko parte hartzea dauka. Aurreikusi erreberritze programan, Monumentu historiko gisa ere sailkatuak izanen diren zalditegiak, eta Arnaga eraikinean burutu obrak sartuko dira, diruz lagunt daitekeen 552 000 € ZK-ko diru zama baten truke, departamenduak horrela %25eko diru laguntza bat ekarriz, erran nahi baita 123 000 €.

Mantenuko obrei dagozkenez, DRAC-ek atxiki programa 196 773 € ZK-ra heltzen da. Honi gehituko litzaioke 127 000 € ZK-ra heltzen den aurreikusi programa bat, nun sartzen den 67 000 €-ko zuhaitzen urteko segurtatzea, hau ere Departamenduak %25eko diruz lagundurik, erran nahi baita 16 750 € ekarriz..

Obren programa 2018 arte luzatzen da, eta DRAC-en adostasunarekin jadanik burutuak izan direnak kontutan hartzen ditu, hauentzat Estatua eta Eskualdearen laguntzak jadanik bilduak izan direlarik. Departamendukoak dira biltzekoak oraindik.

Herriko kontseilua ondare partaidetza hitzarmen hau onartzera gomitatua da Arnaga gunaren erreberritzea, mantenua eta balioztatzerako, 2015tik 2018ra.

Auzapez Jaunak zehazten du herriak eta Departamenduak kontratu aldaketa bat negoziatu eta bozkatu beharko dutela Kanboko Elizari dagokionez, hau, Kultura Ministroaren erabakiaren ondorioz Monumentu historiko gisa sailkatua izan baita joan den otsailan. Ministro agindua ez da oraindik herriko etxera heldu. Aitzin ikerketa bat egina izan da Elizako diagnostikoari dagokionez, eta obrak hasiko dira 2016ko bukaera – 2017ko hastapenean.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du 895 000 € ZGko kopurua jadanik erabiliak izan direnez Arnagako villa eta lorategietarako.

Auzapez Jaunak seinalatzen du zenbateko hau burutu obren zatiei dagozkiela: oihaneztatzea, soropilen birsortzea, hiribideen aldatzea, olerkilarien xokoaren erreberitzea, Rostanden garaian zegoen mahats saretzea berriz ezarriz, Arnagako Liranja berotegiko kanpoko aldearen zati baten erreberitzea eta Pergola handiaren erreberitze osoa.

Hiriart-Urruty Andereak gehitzen du herriak zenbateko honen %25eko diru laguntza bildu duela beraz Departamendutik.

Auzapez Jaunak zehazten du herriak Estatutik %40ko laguntza eskuratzen duela (DRAC-engandik), %15 Eskualdetik eta %25 Departamendutik. Eskualdeak eta Departamenduak DRAC-en erabakiak segitzen dituzte. Azken honek du erabakitzen %40-an diruz lagundu obren zenbatekoa erabakitzen. Eskualdeak eta Departamenduak gaineratikoa ekartzen dute, obren kostuaren %80ra heltzen den diru laguntzen osoko zenbatekorako.

Hiriart-Urruty Andereak zalditegiako obren aurrekontua zenbatekoa den jakin nahi du.

Auzapez jaunak erantzuten dio aurreikusitako zenbatekoa arrunt indikatiboa dela. Ikerketa bat eramana izan da. Erreberitze aski handia aitzinikusi behar daiteke berina teilatu, zelategi, elektrizitatea eta balioztatzearen mailan. Kolektibitateak departamendua galdezkatuko du, obrak burutu aitzin, jakiteko Departamenduaren diru laguntza %25ekoa izaten segituko duenez edo zenbaki hau apaldua izanen denez. DRAC eta Eskualdeari laguntzak eskatuko zaizkie.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du obra hauek ez direnez hala ere zenbatuak izan.

Auzapez jaunak ezetz erantzuten dio. Zehazten du 180 000 €-ko obrak zenbatuak izan zirela zalditegien sailkatze dosierra aurkeztean. Aldeko iritzia eman du sailkapen batzorde nazionalak, eta erabaki bat jakinarazia izanen zaio herriari.

Michelena Jaunak oharrarazten du baduela orain zombait urte lan handiak burutuak izan direla Arnagan. 900 000 € inguru azken zatian, etabeste 900 000 € inguru burutuak izanen dira hemendik 2018 bukaerara zalditegiak, zuhaitzen mantenua eta segurtatzea kontatuz. Erakunde publikoek lehenagoko laguntza berdina eskaintzen badituzte, %20a herriaren gain geldituko daiteke hala ere, horrek zama handi bat osatzen duen herriko buxetan, sartzeak ttipituz doazen garai batean. Galdegiten du lehentasunezkoa denez obra hauek burutzea eta zergatik ez diren kargualdiaren bukaera arte luzatzen. Zuhaitzen segurtatzeaz kanpo, zinez presarik ba ote da obren gaineratikoa burutzean?

Auzapez jaunak erantzuten dio herriak gehiago igurikatuz, gehiago kostatuko duela. Pergola handia zaindua izan balitz, obrak ez ziren hain kario izanen. Herriko ondarearen kudeaketak, aita familiako onaren irudira eramaten gaitu, obra gutiago burutu eta kostu handiagoa momentu batez. Arnaga Frantziako museo sailkatu monumentu historikoa da eta herriak mantenu, inbestizamendu eta erreberitze zereginak nahitaez bete behar ditu. Horregatik dira diru laguntza tasak hain handiak. Laguntzen legezko gehiena %80koa da. Bestalde, herriak BEZ-a obrak bukatu eta bi urteren buruan

berreskuratzen du. Urgentea da Arnagaren irudia aldatzea. Joan urteaz geroz, eta hau aurten berretsia izan da, jende gehiago hurbildu da gune horretara, hau funtsezkoa izanki, eta Arnagak bere fama eta sailkapenaren heinari egokitu behar dio. Datozen obrei dagokienez, herriaren finantzen egoerari behatu beharko zaio, iragarri tasak mantenduak badira. Aurkeztua zaizuen hitzarmenak 2018 arte irauten du, baina ez da eskatuko obrak 2018ko bukaeran bukatuak izan daitezzen. Kasu horretan, hitzarmena luzatua izanen da. Obren burutzea, Rieu Jauna, Monumentu historikoen eskualdeko Kontserbatzailearekin partaidetzan egiten da eta Auzapez Jaunak publikoki eskertzen du Arnagan izan inplikazioaz. Hari esker ditu herriak obra horiek burutu eta laguntzak lortu ahal izan. Rieu gomitatua izanen da, erretretara joan aitzin, omenaldi bat eskainia izan dakion. Urgentea da beraz obra hauek bukatzea garaiak gero eta zailagoak izanen direlako.

Devèze Jaunak hitza hartzen du gehitzeko aipatu diru kopuruak bost urterako banatuak direla.

Michelena Jaunak adierazten du domaia dela aita familiako onaren kudeaketa ez dadin ere Assantza, Courant d'Air edo herriko ateleria ohien berritzeko aplikatua izan.

Auzapez Jaunak oharrarazten du Turismo Bulegoa, Herriko Etxea, Laborde etxea, San Josep parkea, jendarmeria... konponduak izan direla. Gaur egungo herriko kontseiluak, ondare hobe bat utziko du 1995ean aurkitu zuena baino. Assantzari dagokionez, eraikin hau eresia berri izan da, obrak burutzekoak dira. Hainbat ekitaldi bertan antolatuak dira denen onerako. Assantza eta Eliza erreberrituak izanen dira. Bodart karrikako Herriko ateleria ohietan ez da obrarik burutuko. Egitasmo bat balitz leku horretan, eraikin berri batean eginen litzateke.

Aiçaguerre Anderea adierazten du lehentasuna bisitari anitz hartzen dituen Arnagan zuhaitzen segurtatzean datzala.

Auzapez Jaunak erantzuten du ez dela zinezko segurtasun arazorik zuhaitz guziak zerrendatuak, fitxatuak eta aztertuak izan direlako. Babes perimetro bat ezarria izan da arrisku bat sortzen zuten haritzen inguruan, publikoari horrela bertatik hurbiltzea debekatuz. Behar dena egina izan da, zerbitzu egokiekin, zuhaitz guziak ikuskatzeko.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Monumentu historiko gisa sailkatu eta eraikina, parkea lorategiez osatua den Arnaga villarako erreberritze, mantentze eta balioztatzearen aldeko ondare partaidetzaren alde bozkatzen du gehiengo batek. Abstenitzen dira: Hiriart-Urruty Anderea, Bacardatz Jauna, Aiçaguerre Anderea, Michelena Jauna.

Auzapez Jaunak gehitzen du gehiengoko taldea, herriaren alde irudi arloan eta diru ikuspuntu batetik eragin bat duten Arnagako obrak segitzearen alde dagoela.

6 – Lur zati eskualdatzeak – eremu publikoan sartu eta sailkatzea: inkesta abiatzea.

Auzapez Jaunak biltzarrari azaltzen dio François Xavier Darmaillacq Jaunak lur zati eskualdatze ohi batzuk, Laurent Duhart Jaunaren kargualdi garaian burutuak izanak baina sekula ez zirela bururaino eramanak, erregularizatu nahi dituela. 1 162 m²-ko azalerako Charles Palassie karrikan bidea egiten duten AL 155 – 156 – 157 eta 158 zatiak eta Pierre et Jules Fagalde karrikako gune publikoaren zati bat osatzen duen AL 154 dira (C 943, 944, 947, 948, 949 ohiak).

Komenigarria da delibero berri bat hartzea dossier honi buruz, alde batetik prozedura honek segidarik ez baitu ukan, beste aldetik Lurbinttoenbordako bidean kokatu 42 m²ko azalera duen AL 153 (C 878 ohia) zatia ahantzia izan zelako, bertan altxatze postu bat plantatua delarik, azkenik, kadastran zatien zenbakitzea aldatua izan delako.

Zati hauek eremu publikora eskualdatu aitzin, inkesta publikoa beharrezkoa da.

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari galdegiten dio bere iritzia eman dezan zati hauek Darmaillacq Jaunari euro sinbolikoaren truke erosteko printzipioaz, honi dagokion inkesta publikoaren abian ezartzeaz eta herriak fresak bere gain har ditzan.

Bacardatz Jaunak galdegiten du zati hauetako batean denez zuhaitz bat erori.

Auzapez Jaunak ezetz erantzuten dio.

Michelena Jaunak oharrarazten du eskualdatu zatiek orotara 1 204 m²-ko azalera estaltzen dutela eta ez 1 201 m²-koa helarazia izan zaien notan idatzia den bezala. Bestalde, badu 20 urte Darmaillacq Jaunak funts zerga ordaintzen duela, pentsatzen zuelarik 1 204 m² herriari utziak zizkiola.

Auzapez Jaunak zehazten du eraikia ez den funts baten tasa ez dela handia. Darmaillacq jaunak galdegiten du egoera hau erregulartua izan dadin.

Bardin Jaunak gehitzen du beste erregularitze batzuk burutuko direla, besteak beste Juanchuto etorbidean, partikular batzuk bertan bali egin ez diren eskualdatze batzuk burutu zituztelarik.

Bacardatz Jaunak galdegiten du, herria AL 153 zatiko jabea izanen delarik, bertan landatua den platanoa moztua izanen denez.

Auzapez Jaunak adierazten du Darmaillacq Jaunak herriari platano hau inausten edo mozteko baimena eman diola.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aho batez onartua.

7 –H.T.P.ren 5. zki-aren aldaketa: delibero kentzea.

Frédéric Bardin Jaunak biltzarrari oroitarazten dio, 2015eko uztailaren 20ko deliberoaren bitartez, Herriko kontseiluak Hirigintza Tokiko Planaren 5 zki-ko deliberoaren bitartez Herriko kontseiluak Hirigintza Tokiko Planaren 5. zki-aren aldaketa abian ezarri duela hainbat operaziorako:

- 1 - 2AU zonalde bat hirigintzara irekitzea Navarre etorbidean, etxebizitzak sortzeko, hauetako batzuk jабegora heltzeko etxebizitza sozialak eta besteak alokairuan ezartzeko,
- 2 - 2AUy zonalde bat hirigintzara irekitzea Navarre etorbidean, herri elkargoa erosten ari den lur zati batean jarduera ekonomikoa garatzea ahalbidetzeko.
- 3 – kokaleku erreserbatu batzuen sortzea Paskaleku bidean euri uren atxikitze askak plantatzen ahalbidetzeko, eremu eraiki bat euri uren erortze masiboez babesteko,
- 4 – HTP-ren araudiaren aldaketa ALUR legeari egokitzeko gisan eta idazketa akatsak aldatzeko besteak beste,

5 – eraikin batzuk zerrendatu (etxalde ohiak) izar bat plantan ezarriz haien arkitektura zaindua izan dadin eta haien izaera aldaketa ahalbidetzeko gisan (hirigintza kodeko L.123-1-5 artikulua).

2015eko urriaren 5ean eskuratu 2015eko urriaren 2ko telekopiaren bitartez, Suprefeta Jaunak galdegin du deliberoa kentzea « deliberoak bi zonalde hauek (2AU) hirigintzara irekitzea justifikatzen ez duela, hirigintza kodeko L.123-13-1 artikulua xedapenen arabera » zehaztuz.

Herriko kontseiluari delibero honen kentzeari buruzko iritzia emateko gomita luzatzen zaio.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du Suprefetak zer erraten duen xuxen gutun horretan, haren taldeak ez baitu eskuratu.

Auzapez jaunak gutuna irakurtzen du eta adierazten gutun horren irakurtzeko eskaera bat egina izan balitz, eskuratzeko ahala eskainia izanen zitzaiela. Eskaera bat egina izan zen hirigintza dokumentu batzuk lortzeko eta pentsatzen zuen gutun hau barne zela.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du posible denez bide desmaterializatuan lortzea.

Auzapez jaunak erantzuten du dokumentuak herriko etxean kontsulta daitezkeela.

Michelena Jaunak gehitzen du bere taldeak ezin zuela galdegin bazenik ere ez zekielako. Prentsaren bidez ukan dute honen berri.

Hiriart-Urruty Andereak adierazten du: Suprefetak delibero hau kentzea eskatu duela ikusirik, Auzapez jaunak prentsan erran du HTP-aren berrikustearen bukaera igurikatzen zuela ikusteko posible zenez hirigintzarako irekitze hau egitea.

Auzapez jaunak zehazten du aldaketa baten kasuan, ez dela berrikuste orokor baten kasu baten elkarizketa berdina izaten Estatu, LAE, herri elkargoarekin. DLIZ-ko zerbitzuak kontsultatuak izan zirela jakiteko 2AU zonaldea 1AU zonalde gisa aldatzea eta 2AUy zonaldea 1AUy zonalde gisa aldatzea posible zenez aldaketa juridiko baten ikuspuntutik. Erantzuna baiezkoa zen, baina erabaki hori justifikatu behar zen.

Auzapez Jauna berriz dator 2009ko berrikuste orokorrera, baitaki oposiziokoek dokumentuak kontsultatu dituztela.

2009an, Estatuaren iritzian bi lur zati hauetan ohar berdinak agertzen ziren (Suprefetak 2009ko ekainaren 16an idatzi gutuna). 2009ko ekainaren 23an, Auzapez jaunak Prefeta jaunari gutun bat idazten dio adierazteko ohar asko justifikatuak zirela, baina ez zirela kanboarren onurakoak. Laborariek haien haurrei eraikitzekeo parada eskaintzen zieten « dilistak » ahalbidetzen zituzten eremuak kenduak izan dira Prefeta Jaunak hala eskatu ondoren. Aipatu zituen ere laborantza gehiegi kaltetzen ez zituzten 2AU eremuan kokatu bi lur zati horiek, paisaia tratamendu bat izanen zela GIGZ-en arabera, eta horrek herria jarduera ekonomiko bat garatzeko ahala eskainiko ziola. Ez du herriak ohetegi hiria bilakatu behar, ekonomiari bihurtu lur zatiak ukaiten entseatu gabe. Hau da Kanboren etorkizuna.

2009ko uztailaren 7an, Prefeta Jaunak, Eric Morvan Baionako Suprefetaren babespean, ondokoa idazten zuen: « Itsasutik hirian sartzeko eremuari dagokionez, engaiatzen zarete 2 AU bizitegi bi sektoreetako bat kentzera. Kontuan hartzen dut, 2AUy jarduera gunea eta beste AU bizitegi gunea onartu HTP-an atxikitzekeo duzuen borondatea, gune hauen urbanizazioaren irekitzea, paisaia kalitatea eta hiri sartzearen kualifikazioaren zaintzari buruzko ikerketa batekin baldintzatuz ».

Prefeta Jaunak, herriaren argudioen aurrean, onartu zuen lur zati hauek 2AU eta 2AUy-tan ezartzea. Horretarako, GIGZ-en uzkurkeria eta honen ondorioz prefetuak eman adostasunaren aurrean, gehiengoko taldeak pentsatzen zuen GIGZ-ek eta gehien bat prefeturako aginteak jarrera berdina hartuko zutela.

Zuzenbide segurtasunez eta zintzotasunez, Auzapez Jaunak adierazten du 5. zki-ko HTP osoa aldatzeari buruzko deliberoa kentzea proposatua dela.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du presa honen arrazoinak zoin diren, eta zergatik ez den berrikustearen bukaera igurikatu.

Auzapez jaunak erantzuten dio egia dela, Herriko kontseiluak berrikustearen bukaera igurikatzen ahalko zukeela, baina azken honen prozedura biziki luzea izanki eta Grenelle eta ALUR legeekin araberakoan ezartzeko obligazioa kontutan harturik, HTP-a 2013 urte bukaera aitzin edo 2017ko hastapenean finkatzea litzateke helburua.

Hiriart-Urruty Andereak, Natura 2000-k inpaktatu 2AUy lur zatiari dagokionez, Natura 2000-k egin diagnostiko ekologikoa ezagutu nahi du.

Auzapez Jaunak erantzuten du diagnostikoa Errobietako Erreka Kontratuko pertsona batek aztertu duela eta honek adierazi duela utzi behar zen zonalde bat zela eta ez zela 2 hektareako zati horren erdi-erdian kokatua den lur horren gainean eraiki behar. Hau kontutan hartu beharko da ondoko antolaketa baten kariatara, berrikustearen bukaeran lortzen baldin bada eta herriaren nahia baldin bada.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du Natura 2000 helarazia izan dakien.

Auzapez Jaunak adierazten du ez dela gutunik. Halte bidean kanpin-karren eremurako lurra aztertzeraz etorri zen Jérémie Coinonek zuen aurkeztu. ETHEN Environnement kabineteak burutu beharreko ikerketa da. Natura 2000 eremu hau errespetatua izan beharko da.

Bardin Jaunak gehitzen du ez diela oraindik hautetsiei jakinarazi zer zegoen Natura 2000 eremu horretan.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du noiz ezagutaraziak izanen diren ikerketaren emaitzak.

Auzapez Jaunak adierazten du ez diola erantzuten ahal.

Hiriart-Urruty Andereak seinalatzen du lur hauek eraikigarriak bilakazteari buruzko eztabaida jadanik izan zela. Haren taldearen aburuz, ez zen beharrezkoa hala izatea etxebizitza eta funts erreserbarako maila ekonomikoan. Hala eta guziz ere, gehiengoko taldea tematu da.

Auzapez Jaunak galdegiten du gai ordenean egotea, erran nahi baita HTP-ko 5. zki-ko aldaketan, eta ongi ulertu du oposizioko taldeak honen aurkako iritzia zuela.

Michelena Jaunak historio horren morala aterarazi nahi du. Zenbait hilabeteko epean, Suprefeta Jaunak kanpin-karren eremuaren antolaketa alde batetik eta beste aldetik HTP-ko 5. zki-ko aldaketa hunkitzen zituzten bi delibero « aldatu » ditu. Bi aldietan, oposizioko taldeak adierazi zuen ez zirela egitasmo onak, eta gehiengoko taldeak ez dio kasurik egin. Gehitzen du ez dela oposiziorik izan hainbat urtez, eta gehiengoak ez dakiela harekin lan egiten.

Auzapez Jaunak erantzuten du, kanpin-karren eremuari dagokionez, oposizioa egitasmoaren aurka agertu zela lur horietan uholdeak 2014ko uztailearen 4an gertatu aitzin. Hirigintza batzordearen lehen bilkuran berean, Hiriart-Urruty Anderea egitasmo horren aurka agertu zen uholdeak gertatu aitzin. Operazio hau urte bat lehenago burutua izan balitz, GIGZ-ek baimena emanen zuen. Jérémie Coinon ere ados agertu zen bizitegietarako egitasmo bost edo sei metroz mugituz. Egitasmo hau arrunt legezkoa eta egingarria zen Estatuko zerbitzuei begira. Anartean, ohiz kanpoko uholde bat gertatu da auzotegi horretan eta Errobi haranean; prekaizio printzipioarekin, GIGZ-ek ikuspuntutuz aldatu zuen.

Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du Auzapez Jaunak adierazten duela; « GIGZ-en prekaizio printzipioa », baina ez herriarena. « Biziki ongi bazenekiten lur horietan uholdeak gertatuko zirela eta hala ere kanpin-karrak eman nahi izan dituzue leku horretan ».

Lespade Andereak hitza hartzen du seinatzeko kanpin-karren eremua ez dela gai ordenean eta gai hori jadanik aztertua izan dela.

Auzapez Jaunak delibero hau kentzea proposatzen du.

Michelena Jaunak galdegiten du oposizioko taldea sartua izan dadin HTP-ren berrikustean. Gehitzen du: « badu urte bat lan bat ezkutuan eramana dela, ez da neholako informaziorik eta oposizioa ez da sarrarazten. Ez da harritu behar Prefetak onodrioz egitasmoak berriz hunkitzeaz. Multzo ttipian lan eginez, ez gara denen artean bezain adimentsu ».

Auzapez Jaunak erraiten du ongi ulertu duela « oposizioa legezetasunaren kontrolaren bermea dela ». Gehitzen du hirigintza batzordeko hiru prestaketa bilkura programatuak izanen direla berrikusketaren kariatara.

Bardin Jaunak zehazten du neholako erabakirik ez dela hartua izan orain arte. Gertatu diren bilkuretan, HTP-ren diagnostiko bat egina izan da. Adierazten du hirigintza batzordearen bilkura bat burutuko dela heldu den azaroaren 27an 18:00etan ttanko, diagnostiko hau eta GIGZ egitasmoa aurkeztera etorriko den Vanel Duluc kabinetearekin.

Hiriart-Urruty Andereak erraiten du pozez beterik dela gutun bat igorri ziolako Auzapez Jaunari hitzordu bat eskatzeko Axe et Site kabinetearekin. Aldiz, Herriko kontseilu osoa, eta ez bakarrik hirigintza batzordea interesatuko duten informazio biziki garrantzitsuak dira.

Auzapez Jaunak seinatzaten du oposizioa ordezkaturia den hirigintza batzorde bat dagoela, eta bertan den ordezkariari dagokio bere kideak abisatzea.

Hiriart-Urruty Andereak gehitzen du Uztaritze eta Itsasuko herrietan, HTP-a berrikustez arduratzen den kabinetek Herriko kontseiluko kide guziak eta erregularki konbokatzen dituela.

Auzapez Jaunak zehazten du funtsezko prestakuntza lan bat eramana dela, eta etapaka batzordea bildua dela elementu guziak ukaiteko.

Lespade Andereak oharrarazten du oposizioak erraten duela aldaketa hau presaka egin nahi izan dutela. Seinatzaten du egitasmo hau, jadanik aipatua izan zela aitzineko kargualdian eta kide batzuk jadanik aurka agertu ziren. Badu aspaldi egitasmo hau aipatua dela eta gehiengoko kide batzuk ez ziren alde.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

HTP-ren 5. zki-ko alaketari buruzko deliberoa kentzea aho batez onartua da.

Bardin Jaunak ondokoa adierazten du: « Eraso pertsonalak izan dira prentsan, eta nire ikuspuntua ekarri nahi dut. Behin ere, Christian Devèzek ez du esku hartu dossier honetan presio egiteko. Bi lur zati hauek lotzea proposatu du ere etxebizitza gune bat eta jarduera gune bat sortzeko. Bera da bortxa horren jatorrian. Uler dezaket egitasmo horren aurka izatea, baina deitoragarria atzematen dut eraso pertsonalak eginak izan daitezten elkarrizketa nola gertatu den zinez jakin gabe. Nik eraso bat egitean, iritzi bat adierazten dudalarik, gauzak nola gertatzen diren jakiten, zinezko iturrietara joaten entseetzen naiz. Dosierra ez dugularik ezagutzen, atzematen dut eraso pertsonal hori eginez kolpatzen ahal dela, niretzat ez da horretan neholako funtsik. Dosierra ongi ezagutzen dut, Christian ongi ezagutzen dut, ez du behin ere esku hartu, ez eta presiorik egin ere ».

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du nori zuzentzen zaion Bardin Jauna.

Bardin Jaunak erantzuten dio: « ez bazarete zuek, prentsa da ».

Hiriart-Urruty Andereak gehitzen du: « Mediabaskek artikulua bat atera du eta egun hartan berean Sud-Ouest harremanetan sartu da nire taldearekin. Sud-Ouesten agertu artikuluan, ez dugu eztabaida horretan sartu nahi izan, guri axola zitzaguna zen egitasmo hau arrakastatsua gerta ez dadin. Lehenik, ez da etxebizitzarik eraikitze beharrik eta ez dio tokiko eskaera bati erantzuten, eta ez da funts erreserbarik ekonomiarako. Gure artikulua horretan oinarritzen zen eta ez hik aipatzen dukanaren gainean ».

Auzapez Jaunak adierazten du: « Erreserba ekonomikoari dagokionari ere aurka agertzen zarete ».

Hiriart-Urruty Andereak erraiten du: « Ez gaude erreserba ekonomikoaren aurka, lurrak laborariei hartzearen aurkakoak gara, haiek ere ekonomia hauskor forma bat direlako, defenditu behar duguna ».

Auzapez Jaunak galdegiten du: « nori hartu behar zaizkio lur zatiak jarduera ekonomikoa egiteko. Biziki konkretuki, nun aurki ditzakegu bi hektarea adibidez jarduera ekonomikoa egiteko? »

Hiriart-Urruty Anderea: « Txokolategi ohia adibidez, zergatik ez du Errobi herri elkargoak erosteko lehentasuna hartzen eraikin horren suntsitzeko eta erreserba ekonomiko bat egiteko ».

Auzapez Jaunak galdegiten dio honen kostuari buruz zerbait galdegin duenez.

Hiriart-Urruty Andereak ezetz erantzuten du.

Michelena Jaunak adierazten Frédéric Bardinek seinalatu duena biziki garrantzitsua dela. Prentsak izenak atera dituelarik, bere taldeak galderak bazituen ere. Baina honen kideek kasu eginez ibili dira, neholako elementurik ez zutelako dossier honetaz, eta ez dira behin ere eztabaida horretan sartu. Nahiz eta kazetariak galderak behin eta berriz pausatu, gaiaren funtsari erantzuten gelditu dira beti.

Auzapez Jaunak gehitzen du: « onartuko didazue bestelako iritzi bat ukaitea, nik ere beste iturriak baititut ». Auzapez Jaunak proposatzen du gaia bertan behera uztea.

Michelena Jaunak erraten du: «Hire iturriak zoin diren erraiteko ausardia politikoa ukan behar duk, iruditzen baitzait zerbait leporatzen zaigula ».

Auzapez Jaunak gai ordeneko ondoko puntura pasaratzen du.

8 –2016ko prezioak.

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari gomita luzatzen dio iritzi bat ager dezan herriko kontseilari bakoitzak eskuratu duen 2016 urterako prezio proposamenei buruz. Seinalatzen du zerbitzuantzeko zentroan bulegoen alokatzeetan aldaketa bat ekarri behar dela. CARSATEk bere permanentziak atxikitzen zituen bi egun erdiz hilabetean, eta galdegin du hilabetean bi egun osoz etortzea. Orain arte, erakunde horrek herriari 560 € urtean ordaintzen zizkion eta proposatua da zenbateko hori 950 €-ra pasaratzea urtean, astean egun erdi batez, erran nahi baita hilabetean bi egunez datorren Familien laguntza Kutxari bezala.

Beste prezioei dagokienez, Auzapez jaunak galdegiten du galderarik badenez.

Aiçaguerre Andereak, herriko apartamenduen alokairuei buruz, galdegiten du hilerriko etxebizitza ez denez horretan sartzen, Arnaga villako 2. estaian kokatua den apartamenduaren gisara. Ez da alokairu bat? Labat Anderea kontratatua izan delarik, etxebizitza bazuen zerbitzu baliagarritasun gisa ordainsari baten truke. Zenbatekoa da ordainsari hori?

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak zehazten du ordainsaria apartamenduaren alokairuzko balioaren bilakaeraren arabera eguneratua dela. Ez du Herriko kontseiluak emendatzea erabakitzen, alokairuaren balioak du ordainsariaren zenbatekoa zehazten.

Aiçaguerre Andereak adierazten du ez dagoela zerbitzu baliagarritasun etxebizitzarik gehiago. Deipeko erabilpen prekarioko hitzarmenak dira 2015eko irailaren 1etik. Aladaketa hau egina izan ote da?

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak seinalatzen du hori egina izan dela Arnaga villako 2. estaian kokatua den apartamendurako.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du zoin diren deipekoak, eta dosierra kontsulta daitekeenez.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak oharrarazten du pertsonala dela. Legearen egokitze bat izan da.

Aiçaguerre Andereak adierazten du dosierra kontsultatzera etorriko dela eta galdegiten du berdin denez hilerriko bizitegiari dagokionez.

Michelena Jauna aski harrtua da apezetxeko alokairuaz, hilabetean 26 €-koa baita. Asteburu honetan jakin du Getariako Herriko kontseiluak dituela alokairu desberdinak bozkatu, eta Jaun erretoreak 800 € ordaintzen duela hilabetean, errannahi baita merkatuko prezioa. Nola izan daiteke apezetxeko alokairua desberdina usaian praktikatuak direnetaz?

Auzapez Jaunak erantzuten dio Frantziako herri gehienetan, zaingo baten trukezko alokairu bat aplikatua dela. Operazio neutroa da. Jaun erretorea, herriko eraikina den elizaren mantenuaz, zaintzaz eta hesteaz arduratzen da.

Hiriart-Urruty Andereak oharrarazten du M.N.S.-ei finkatu igerilekuko bainatokien alokatzearen prezioa ez dela aldatzen. Horrek erran nahi du ez dela aldaketarik izanen igeritokiaren ibilmoldeari dagokionez. Bi M.N.S.-ek « sasoi eder bat egiten dute ».

Lespade Andereak erantzuten du ibilmoldea berdina izanen dela, baina erabakia izan da oren bat gehitzea arratsez astean behin.

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zoin preziotan.

Lespade Andereak adierazten du goizean aplikatua den prezio berdinean izanen dela.

Aiçaguerre Andereak oharrarazten du erabakia kirol batzordea bildu gabe hartua izan dela.

Lespade Andereak erraiten du egia dela eta kirol batzordea ez dela bildu. Galdegina izan zen zenbait aldaketa ekartzen entseatzea. Zaila zen aurtengo. Arratseko ordua heldu den urtean entseatua izanen da.

Aiçaguerre Anderea dolutzen da kirol batzordea bildu ez izanaz gai horren aipatzeko.

Irastorza Jaunak adierazten du kirol batzordea laster bilduko dela.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

2016 urterako prezioak aho batez onartuak dira.

9 – Diru laguntzak.

Auzapez Jaunak Herriko kontseiluari hiru diru laguntza ematea proposatzen dio:

a) Itsasuko Xapata elkarte.

Auzapez jaunak adierazten du gutun bat eskratu duela elkarte horretako lehendakariarengandik Itsasuko gereziaren menturazko AOP (jatorria babesten duen sormarka) bati buruz jotzeko gereziondoen egoera aztertzeko egitasmo baten aldeko diru laguntza bat eskatuz. Eremu geografiko bat marraztua izan da, Kanbo herria barnean hartuz. Diagnostiko hau burutzeko, elkarte horrek herriko diru laguntza bat lortu nahi luke. 500 € ematea proposatua da. Itsasuko herriak 2 000 €-ko diru laguntza bozkatu du, Ezpeletakoak 500 €-koa, Lekornekoak 190 €-koa. Auzapez Jaunak zharazten du gaur egun ez dakiela beste herriek (Bidarra, Makea eta Luhosoa) delibero bat hartu dutenez.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Aho batez bozkatzen da 500 €-ko diru laguntza Itsasuko Xapata elkarteari ematea.

b) Kanboko Merkataritza Batasuna.

Auzapez Jaunak hitza Dor Jaunari pasarazten dio, eta honek adierazten du bigarren urtea dela Merkataritza batasunak diru laguntza bat eskatzen diola herriari merkataritza hamabostaldia antolatzeko. Joan den urtean, herriak diru laguntza bat eskaini zuen, eta ohiz kanpoko laguntza ekarri komunikazio mailan. Urte bukaerako bestak hurrei eskaini asteburu batekin (jokoak) animatuko dituen elkarte hau laguntzea proposatzen du, 1 000 € eskainiz, animazioen aurrekontua aski handia delako.

Auzapez Jaunak zehazten du animazio egitasmoa 2 275 €-koa dela. Herriak 1 000 € heineko laguntza bat erabakitzen badu, Merkataritza batasunaren gain 1 275 € geldituko litzateke.

Kontseiluko kide guziek kontsulta dezaketen aurrekontu bat helarazia izan zaio herriari.

1 000 €-ko diru laguntza aho batez onartua da.

c) *Garaiko Kanboko besta komitea.*

Auzapez Jaunak hitza Lespade Andereari uzten dio eta honek adierazten du Garaiko Kanboko besta komiteak ohiz kanpoko 5 000 €-ko diru laguntza bat eskatzen duela haren defizita estaltzeko. Lespade Andereak historikoa berriz hartzen du eta seinalatzen du Idoia Lamoureux diruzain izendatua izan dela duela urte bat, eta ordainduak izan ez ziren faktura batzuk aurkitu dituela, komitea banku debekuan izanki. 2013 eta 2014ko xapitoen fakturak ez ziren ordainduak izan. Erran dio herriko etxearengandik errezibitu diru laguntzarekin, lehentasunez zorrak ordaindu behar zirela. Herriko etxeak 2015 urterako eskaini 14 500 €-ko diru laguntza 4 000 €-z ttipitua izan zela. Gainera ohointza bat pairatu dute. Herriko bestak ongi iragan dira. Beste dei batzuk izan dira ordaindua izan ez den 2013ko faktura bat eta 2014ko beste bat seinalatzeko. Hitzordu bat hartua izanen da bankuarekin jakiteko noiztik diren defizitan. Horregatik, proposatzen du, gazte hauek oinarri onetan abia daitezen, Garaiko Kanboko besta komiteari ohiz kanpoko 5 000 €-ko diru laguntza eskaintzea.

Auzapez Jaunak zehazten du joan den azaroaren 7an, larunbatarekin, Pascale Lespaderekin, biziki aktiboa, biziki irekia den besta komite berriarekin bildu direla, eta honek herriko etxearekin lan egiteko gogoia adierazi diela. Gehitzen du Idoia Lamoureuxek, komiteko diruzain eta orain lehendakari izendatua izan denean ez duela neholako fakturarik, neholako kontabilitaterik aurkitu. Azpimarratu nahi du diru publiko erabilpena baita hemen jokoan. Seinalatu behar da ere SACEM-eko 2014ko faktura ez dela oraindik ordaindua izan.

Lespade Andereak zehazten du SACEM-eko pertsona bat herriko etxearekin harremanetan sartu dela besta komiteko helbidea lortzeko ezin baitzuen harekin kontaktuan sartu. SACEM-ek ez zuen erantzunik komiteari igorri gutunei. Idoia lamoureuxek SACEM deitu du, baina ez daki 2014ko faktura ordaindu behar denez.

Auzapez Jaunak seinalatzen du egoera biziki larria dela, eta legez kanpokoa. Ez dizkio lehen taldeak besteari dokumenturik helarazi, ez eta fakturarik, dokumenturik, artxiborik, dena hutsik aurkitu dute besta komitean. Ekipa berriak burutu lana azpimarratzen du eta gehitzen du ere sarrailek aldatuak izanen direla. Arrunt egoera anormala da diru publiko erabilpen arloan. Egoera konpondu behar dela arrunt argi duen ekipa berri honekin denbora pasatzen duen Pascale Lespade eskertzen du. Xahutze eta sartze erregistro bat egina izanen da. Animazioak programatuak izanen dira errezeta gehigarriak biltzeko gisan.

Hiriart-Urruty Andereak adierazten du biziki untsa dela diru mailako sostengu bat, baina beste maila bateko sostengua behar dutela gazte hauek. Hautetsiek kanboko bestetara hurbildu beharko lukete.

Auzapez Jaunak erantzuten dio 5 000 €-ko ekarpen bat justifikatzen duen arazo bat dagoela, eta diru zama hau aski garrantzitsua dela. Espero du ez zaiola Kontseiluari dirurik berriz eskatuko. Gai horri buruz kontzentraturik egotea galdegiten du. Gazte horiek laguntza behar dute, hala eskatu dute eta herriak, animazioak bestak aitzin antolatzea erabaki eta besten programa askoz aitzinetik

eta ez azken momentuan prestatu behar dela argi duen komite horrekin partaidetza bat marraztuko du. Gazte hauek herriko etxearekin lan egin nahi dute eta Auzapez Jaunak espero du ekipa honek arrakasta ezagutuko duela.

Irastorza Jaunak hitza hartzen du zehazteko 5 000 € hauek aitzineko kudeaketa txar baten ondorioz ematen direla eta ez urte honen bukaerako besten antolaketa laguntzeko.

Lespade Andereak gehitzen du horregatik galdeginen duela hitzordu bat bankuan jakiteko noiztik den defizit hori.

Larronde Andereak galdegiten du nor ziren aitzineko lehendakariak.

Auzapez Jaunak adierazten du Cécile Hiribarren diruzain izan dela zenbait urtez.

Aiçaguerre Andereak hitza hartzen du seinalatzeko Cécile Hiribarren haren alaba dela eta ez dela 2011 edo 2012tik gehiago diruzain.

Lespade Andereak seinalatzen du Cécile Hiribarren 2014an gelditu dela.

Aiçaguerre Andereak zehazten du nehor ez zela lekukoa hartzeko prest eta Lespade Andereari erran zion ez dela gehiago horretaz arduratzen. Bilana urte guziz eskatua izan balitz, ez liteke behar bada diru eskasik. Haren alabak 2011n gelditu nahi zuen, baina nehor ez zen haren ordezkatzeko.

Auzapez Jaunak erraiten du lehendakaria eta diruzainaren ardura badaudela. Panpi Dibar lehendakari izan zen 2012 – 2013 eta 2014 urteetan. Harreman jarraikiagoak eta sanoagoak finkatu behar dira orain. Ez da normal gaur egun ohartzea ordaindurik gabe gelditu diren fakturak badaudela, eta dokumentu eskasa besta komitearen baitan. Hori guzia salatu behar da eta hautetsiei dagokie jarrera hau salatzea. Ez da jaukimendurik izanen. Espero dugu lekzione ederra izanen dela eta guziek honen ondorioak kontutan hartuko dituztela etorkizunari buruz, eta ekipa berria oinarri berri batzuetatik abiatuko dela, besta komite horren baitan agintea zutenen partetik kudeaketa eta ardura eskasa izan delarik.

Auzapez jaunak, 5 000 € besta komiteari eskaintzeko iritzia emateko gomita luzatzen du.

Lespade Andereak zehazten du diru zama honi esker besta komiteak beste fakturak ordaintzen ahalko dituela. Gehitzen du komite horrek egitasmoak dituela herriari buruz berriz ez jotzen entseatzeko. Komiteak Olentzero antolatuko du urte bukaerako oporretan, eta Jeikadirekin partaidetzan lan eginen du heldu den urtearen hastapenean gertatuko den Jauterien 10 ueteen kariatara, gaualdiaren etekina atxikitzeko. Ganer huste bat antolatuko du ere.

Auzapez jaunak kuraia eta motibazio handia desiratzen dizkio Besta komiteari eta espero du aterako dela.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Ohiz kanpoko 5 000 €-ko diru laguntza Garaiko Kanboko besta komiteari eskaintzea aho batez onartua da.

Auzapez Jaunak zehazten du Besta komite berriak Suprefeturan aldarrikapen formala eginen duela, haien elkartzean adierazia izan den bezala.

10 – Langileak.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak adierazten du, heldu den urtarrilaren 2an kolektibitateak joanen den Patrick Elizalde ordezkatu behar dela. Horregatik, gradu desberdinetako postu bat sortzea komeni da: laguntzaile teknikoa, teknikaria, 2. mailako edo 1. mailako teknikari nagusi eta maisutasun agentearena, gaur egun Patrick Elizalde okupatzen duen gradua.

Sortze honek deialdi publikoa ahalbidetzen du. Hautagaitzak datorren azaroaren 16a arte bilduak izanen dira.

Aiçaguerre Andereak galdegiten du, postua jadanik dagoelarik, kendua denez edo nola pasatzen den.

Zerbitzuetako zuzendari orokorrak zehazten du postua ezin dela kendu. Herriko kontseiluari heldu den urtearen hastapenean, langile mugimendu guziak kontutan hartuko dituen langileen taula onartzeko gomita luzatuko zaio.

Auzapez jaunak zehazten du langileen taularen eguneratze bat izanen dela.

Auzapez Jaunak bozkarazten du.

Zerbitzu teknikoetako zuzendaritzarako laguntzaile zereginak segurtatzeko enplegu iraunkor bat 2016ko urtarrilaren 1etik goiti sortzea, aho batez onartua da.

11 –URA, APE eta saneamendu kolektibo eta ez kolektibo sindikatu anitzak

Auzapez Jaunak proposaturik, Herriko kontseiluak, aho batez,

- a) onartzen du Hego Lapurdiko Hirigunearen URA sindikatuen kentzea Ahetze eta Arbona herrientzako AEP eta URA saneamendu kolektibo eta ez kolektibo sindikatu anitzetatik,
- b) onartzen du estatutuen aldaketa egitasmoa URA sindikatu anitzen egoitza sozialaren lekualdatzearen ondorioz Uztaritzeko Lapurdi zentrotik Errepirara – Haltsuko bidea – 64480 Larresoro.

12 – Auzapezaren erabakien komunikazioa

Lurralde kolektibitateen kode orokorreko L. 2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera eta 2014ko apirilaren 7ko herriko kontseiluaren deliberoaren ondorioz, ondokoa jakinarazten da

1º) hiriaren erosteko lehentasun eskubideari dagozkion ezezko erabakiak, 2015eko irailaren 11tik urriaren 26ra:

- Lur eremu: 7
- Etxe: 5
- Apartamendu: 3

2º) hilerrian kontzesioen emate eta berriz hartzei buruzko erabakiak, 2015eko irailaren 11tik urriaren 26ra:

- Kontzesio erosketa 15 urterako: 0
- Kontzesio erosketa 30 urterako (+ hilobiak): 0

- Kontzesio erosketa 30 urterako (+ Kolunbarioak) : 1
- Kontzesio berritzea 15 urterako: 1
- Kontzesio berritzea 30 urterako (hilobiak) : 0
- Dohaineko lur zatien berriz hartzea: 0

Hiriart-Urruty Andereak galdegiten du zoin lur zatiak diren.

Auzapez Jaunak erantzuten dio dokumentua kontsultatzera herriko etxera etortzen ahal dela, Herriko kontseiluko bilkura aitzin ere.

Bacardatz Jaunak seinalatzen du dokumentuak herriko etxera kontsultatzera etor daitekeela, baina lehenago galdegin zuela, hautetsi gisa, Camp de César bideko bizitzaileen parte hartzeari buruzko dosierra kontsultatzera etortzea eta ez zitzaioa posible izan.

Auzapez Jaunak oharrarazten du saio publiko bat dela eta ez duela adierazterik nor eta zoin preziotan saldu duen lur zati bat.

12 – Orotariko gaiak.

Auzapez Jaunak proposatzen die Herriko kontseiluko kide guziei 2015eko azaroaren 21ean, 10:00etan, herriko etxean (kontseiluaren gelan) burutuko den mintegian parte hartzea. Bi gai aipatuak izanen dira:

- EEP-ko Jean-Michel Barbierrek eta Errobi Herri elkargoan hizkuntza gaietaz arduratzen den Ioné Josiéek aztertu aitzinamendu kontratua, herriak Euskararen Erakunde Publikoarekin izenpetu behar duena.
- Prefeta jaunaren herri arteko elkargoari buruzko txostena, Herriko kontseilu osoa gomitatua izan den Luhuson jadanik aztertua izan dena. Euskal Herri mailako HELEP bakarreko egitasmoa bertan aurkeztua izanen da.

Michelena Jaunak, HELEP-ari buruz, uste zuen ulertu zuela Herriko kontseilua kontsultatua izanen zela.

Auzapez Jaunak baietz erantzuten dio. Herriko Kontseiluaren kontsulta azaroaren bukaeran burutuko da erabakirik gabeko lehen bozketa baterako erabakia abenduaren 1a aitzin hartua izan beharko duelako. Heldu den apirila edo maiatzan, proposamenari buruzko bigarren bozketa bat izanen da, herri arteko elkargo lankidetzarako departamenduko batzordeak egingen duen proposamenari buruzko bigarren bozketa bat izanen da. Bera batzorde horretako kide da departamenduko kontseilari gisa. Lehen bozketa indikatiboa da eta bigarren bozketa erabakitzailea.

Michelena Jaunak galdegiten du azaroko Herriko kontseiluko eguna finkatua denez.

Auzapez Jaunak adierazten du azaroaren 30ean bilduko dela.

Hiriart-Urruty Andereak, sektoreko bizilagun guziak hunkitzen dituen Sud Mineko egitasmoa aipatu nahi du. Iruditzen zaio kanboar biztanleria guzia ez dela biziki jakinean, eta CADE etorraraztea proposatzen du, Itsasun eta Uztaritzen herritarrei egitasmo honi buruzko informazioak emateko egina izan den bezala.

Auzapez Jaunak pentsatzen du interesgarria dela eztabaida kontradiktorio bat eta ez akusamenduzkoa izan dadin. Oroitarazten du erreserba handienak adierazi dituela egitasmo honi buruz. Herriak eta Herri elkargoak ez dute neholako informaziorik dossier honen aitzinamendu

egoerari buruz. CADE etorrrazteketan, elkarteei edo oposizioari zaie horren egitea tokatzen. Ez du erakunde hau herriko etxera gomitatzeko asmorik. Jadanik izan da publiko zabal bati irekia zitzaion bilkura bat CADEREkin gai honi buruz. Herria arrunt aldekoa da CADek edo elkarte batek gela bat alokatu nahi badu bilkura bat antolatzeko demokratikoki eztabaidatzeko. Auzapez Jaunak pentsatzen du objektiboagoa eta argigarriagoa litzatekeela eztabaida egitasmoaren ekarlea eta CADERen artean antolatuko balitz. Berriz dio Kanboko herriak ez duela egitasmo hau sostengatzen.

Hiriart-Urruty Andereak seinalatzen du Britainian miaketak jadanik hasiak dituztela.

Auzapez Jaunak erantzuten dio hala dela, baimena lortu dutela.

Hiriart-Urruty Andereak zehazten du PER bat burutua izan zelan eta Ekonomia Ministerioak duela baimena ematen. Interesgarria daiteke, oposizioak CADE etorrraziko balu, herriko etxeak elkartze honekin bat egin dezan. Zinezko lanjer bat da iragartzen hor.

Auzapez Jaunak erantzuten dio eztabaida kontradiktorioak nahiago dituela, txosten baten aldekoak eta aurkakoak aurkeztuak izan daitezen. Ez du horrek erran nahi aldekoa denik. CADE bortxaz egitasmo horren aurka doa.

Hiriart-Urrut Andereak erraten du CADek argudio biziki interesgarri eta zuzenak dituela.

Aïçaguerre Andereak gehitzen du Sud Minek ez duela gehiago etorri nahi, eta Laborantzako Ministroak kontrako iritzia agertu duela.

Auzapez Jaunak oroitarazten du Nicolas Sarkozyren lehendakaritzapeko Laborantzako Ministroa AHT-ren aurkako zela eta horrek ez duela Estatu dossier honen aitzinarazteko oztopatu. Oposizioak bilkura bat antolatu nahi badu CADEREkin, ez da herriaren izenean izanen, izpiritu kontradiktorioa errespetatu behar delako.

Goytino Jaunak, Aïçaguerre Andereak helarazi mailaren ondorioz, adierazten du ezin izan duela Uztaritzera joan CADEREkin antolatu bilkuran parte hartzeko, baina dokumentua Interneten ikusi ahal izan duela. CADek, parte hartzaile desberdin batzuen bitartez, egitasmo honi buruz duen ikuspuntua ekartzen du. Ez ditu meatze ustiatzeak eragin ditzakeen kalteak hunkitzen. Badirudi egitasmo hau prospekzioaren mailan dela. Prefetak iritzi bat plazaratu behar du azaroaren 11 aitzin, meatze bilaketari buruz, baina nehola ere ez ustiatzeari buruz. Bi baimen desberdin daude.

Auzapez jaunak gehitzen du bi baimen desberdin daudela:

- eskaera bat arakatzea, bilaketarako azalera zehatz batean eta leku biziki zehatzetan deskribatuak diren baliabide eta aurrekontu aski xume batzuekin;
- Estatuak onartzen badu baimen hau ematea, eztabaida berri bat izanen da hiru hilabeteren buruan, eta bertan Auzapez jaunak espero du herriei lehen baino leku handiagoa eskainia izanen zaiela, menturazko ustiatzeari buruz.

Hiriart-Urruty Andereak, gaur egungo meatze kodearen arabera, adierazten du ustiatzea baimena automatikoki egiten dela, bilaketa baimen eksklusiboaren ondotik. Inkesta publiko bat abian ezarria izanen da obren hastapenean. Berantegi izanen da beraz, eta pentsatzen du herritarrak ez direla horretaz ohartuak. Desastre ekonomiko, ekologiko eta humanoa izanen da. Gehitzen du 15 soldatadunetz osatu meatze ustiatze batean, 5 tokikoak zirela eta lau minbiziaz hil direla, urrea ustiatzeko, zianuroa erabiltzen baita. Ustiatze bat bada Carcassonetik hurbil azken hamaika urte hauetan hetsia dena, eta zintzur mehakako minbiziak % 110ez emendatu dira, birikietako minbiziak % 80ez, eta barazkiak ez dira oraindik kontsumitzen ahal.

Goytino Jaunak oharrarazten du informazio bilkura berri bat burutuko dela azaroan gandi Saran.

Hiriart-Urruty Andereak adierazten du informazioak CAD Eren gunean aurki daitezkeela, eta hunkituak sentitzen diren hautetsi guziak petizioa izenpetzera gomitzen ditu, gai oso garrantzitsua delako.

Bacardatz Jaunak seinalatzen du hainbat ohointza gertatu direla saltegietan, etxebizitzetan. Galdegiten du segurtasun eskasia bat agertzen denez, zer gertatzen da?

Auzapez Jaunak erantzuten du mugimendu batez ohartu direla Kanboko leku desberdinetan, eta hiru gazte galdezkatuak direla jendarmerian.

Auzapez Jaunak saioa 22:30etan bukatutzat ematen du.